

Martxoaren 31n
GARIZUMAKO 4. IGANDEA

Agurra

Bihotz-berritzera dei egiten digun Jesu Kristoren grazia eta maitasuna zuekin.

Sarrerako oharpena

Garizumako laugarren igande honi «laetare» igandea deitu izan zaio: alaitasunaren igandea, gertu dagoelako jada Pazko jaia. Otoitz sutsuagoa egiteko deia egiten zaigu: Jainkoarekiko eta senideekiko elkartasuna indartzeko. Aitarene etxeko senti gaitezen: Kristok prest du guretzat gaur ere mahaia: Hitz bizia, bere Gorputz zatitua, bere Odol isuria.

Damu-otoitza

Jesu Kristo, zuzena denak, Aitarekin adiskidetzen gaitu. Ager dezagun gure bekatua eta damu-jarrera Jaunaren mahaira gerturatzeko.

- Jesus Jauna, onginahi hutsez salbatzen gaituzuna: erruki, Jauna.
- Jesus Jauna, zure graziaz aberasten gaituzuna: Kristo, erruki.
- Jesus Jauna, gurutzean Jainkoaren maitasun neurrigabea erakutsi diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizitzara.

Otoitza

**Jainko Jauna, zure Hitza gizon eginik,
 miragarriri adiskidetu zenituen
 gizon-emakume guztiak Zeurekin;**

egizu, kristau-herria,
 maitasunean bero eta sinesmenean alai,
 presta dadila pazko jaietarako.
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoaren aurpegi ederrenetarikoa agertzen digute gaurko Irakurgaiek: Salbamenaren lurrera garamatzen bide-laguna, barkamenaren eta adiskidetzearen Aita errukitsua. Entzun dezagun bihotz zabalez.

Lehenengo irakurgaia (Jos 5, 9a. 10-12)

Josueren liburutik

Egun haietan, Jaunak honela esan zion Josueri: «Gaur kendu dizuet Egiptoko lotsaria».

Israeldarrak Gilgalen etxolatu ziren, eta han ospatu zuten Bazkoa, hilaren hamalauko arratsaldean, Jerikoko zelaian. Bazko biharamunean, egun horretan bertan, lurraren emaitzetatik jan zuten; ogi hilak eta gari ale erreak.

Lurreko emaitzetatik jaten hasi zirenean, atertu egin zen mana. Israeldarrek ez zuten gehiago manarik izan, eta urte hartan Kanaan lurreko emaitzez janaritu ziren.

Erantzun-salmoa (Sal 33, 2-3. 4-5. 6-7)



Txas-ta e-za-zu - e ta i - kus zein sa-mur den Jau-na.



Bedeinka dezadan aldi oro Jauna,
nire ahoan beti Haren gorespena.
Gailendu bekit bihotza Jaunarekin,
poztu bitez apalak hori entzutearekin. R/.

Handietsi nirerekin Jauna,
ospa dezagun batean Haren izena.
Jaunaren bila nebilen eta entzun ninduen,
beldur guztietatik atera ninduen. R/.

Begira iezaiozue alai zaitezten,
zuen aurpegiak lotsa ez daitezen.
Dohakabe honek oihu egin zuen, eta Jaunak entzun,
estualdi denetatik atera du bere eskuz. R/.

Bigarren irakurgaia (2 Ko 5, 17-21)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei

Senideok: Kristorena dena, sorkari berri da; zaharrarenak egin du; berria hasi da. Eta guzti hau, Jaungoikoarengandik dator, Kristoren bitartez bere adiskide egin bait gaitu, eta adiskidetzeko zerbitzua guri ezarri digu. Izan ere, Jaungoikoa mundua Berekin adiskidetzen ari zen Kristorengan, gizon-emakumeei bekatuen kontua eskatu gabe; eta guri eman zigun adiskidetzearen hitza. Gu Kristoren ordezkot bezala ari gara, beraz; Jaungoikoak gure ahoz hots egingo balizue bezala.

Kristoren izenean esaten dizuegu: adiskidetu zaitezte Jaungoikoarekin. Bekaturik ezagutu ez zuen Hura, Jaungoikoak gugatik bekatu bihurtu zuen, guk Harekin bat eginda Jaungoikoaren salbamena irits dezagun.

Ebanjelio-aurreko gorapena (*Jn 15, 18*)

Je - su-kris- to gu - ri min-tza, ar - gi gu-re bi-ho- tza.

Altxa eta banoa neure Aitarengana,
 eta honela esango diot:
 «Aita, bekatu egin dut
 zeruaren aurka eta zure aurka». R/.

Ebanjelioa (*Lk 15, 1-3. 11-32*)**Homiliarako argibideak**

Besarkatu egin zuen

Katolikook uste dugu, gu garela, hori pentsatu izan dugu. Guk ez dugu aitaren etxetik alde egin, beste hainbat “anaia-arreba bananduk” bezala; ez dugu alde batera utzi erlijioaren praktika, gure kide askok bezala. Kontzientzia on hori astintzen hasi gara orain dela urte batzuk, dirdira duen oro ez dela urre ikusten, ezta Elizaren hierarkia izenekoak ere. Oraintsuko eskandaluek erakusten dute bekatariz betetako Eliza bateko kide garela, etengabe behar duela barkamena, bai eta Jainkoarekin eta gizakiek adiskidetzeara ere (2 Kor 5,17-21). Jesusen gurutzearen aurrean, denok behar dugu horren errukia. Jesus da Aitaren errukiaren aurpegia. Bere predikuan, Aita onaren erruki mugarik gabea iragarri zuen. **Errukiaren parabolak** izeneko hiru paraboletan batez ere.

Aita onaren eta haren bi semeen parabola da, seme hondatzailearen parabola deiturikoa (Lk 15,1-3;11-32). Aita da

parabolako benetako protagonista. Ez dio bere bi semeen jokabideari jarraitzen, Haiiek edozer eginda ere, aita izaten jarraitzen du. Seme gaztea ez dago gustura etxean, eta bere senipartea eskatuta, aitaren begiradatik urrun alde egiten du. Horrela, diruarekin, bere kasa bizi ahal izango dela pentsatzen du, inork enbarazu egin gabe, **askatasunaz gozatuz**.

Irriki zituen askatasuna eta gozamina aurkitu ordez, baina, esklabo bihurtuko da laster, miseria gorrian egongo da, animalien pare ia. Aitaren etxean bizi izandakoaren kontzientzia du, oraindik, ordea. Galdutakoaz jabetu, eta morroi-lana eginda berreskuratu nahi du zerbait. Egia esan, ez zekien nolakoa zen aitaren bihotza, eta aitak bere maitasun guztia erakutsiko dio, aitortza amaitzen ez utzita. Berehala barkatuko dio, eta **seme duintasuna** itzuliko dio, bere eraztuna emango dio, baliabide ekonomikoak baliatzeko gaitasuna ematen diona, eta festa handi bat antolatuko du.

Seme zaharrenari erokeria irudituko zaio maitasun hori. Hark ere ez daki nolakoa den aitaren bihotza. Seme leiala da seme zaharrena, baina **langile baten leialtasun tristea** da harena, seme batena baino gehiago. Ez da konturatu berea ere badela aitarena den guztia. Ez gauza materialak bakarrik, baita aitarengandik jasotzen dugun errealitate espirituala ere. Larriena da seme leialak anaia aitortu nahi ez izatea, anaia **arrotz** modura tratatzea, anaia aitaren semea bakarrik balitz bezala, beretzat ezer ez balitz bezala. Izan ere, seme zaharrena seme gazteenaren inbidiatan dagoela dirudi, nahiz eta haren abentura desastre hutsa izan dela ikusi. Hura ere gutira biziko zatekeen askatasun erabatekoan, ez zen ausartu, ordea, aitaren etxetik joaten. Eta barne haustura gertatzen da haren eta aitaren artean. Aitak seme hondatzailearekin horrela jokatzeko badu, ez du merezi aitaren etxean bizitzea.

Aitak ahalegin guztia egingo ditu semeak **adiskidetu** daitezen, seme zaharrenak uler dezan. Anaiak izaten jarraitzen dutela ikusaraziko dio. Egoki da poztu eta festa egitea, zure anaia hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu. Har dezagun, Eukaristian, Kristo Jesusengan barkatzen gaituen eta anaiarekin adiskidetzeko prest bagaude onartzen gaituen Jainko gure Aitaren maitasun errukitsua.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jaunari, ez baitu nahi bekatariaren heriotza, bihotz-berritu eta bizi dadila baizik, eta eska diezaiogun izan dezala errukia bere herri damutuarekin:

Erantzuna: Kyrie, eleison!

Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son! Ky-ri-e, Ky-ri-e, e-lei-son!

—Garizumaldi honetan adiskidetzearen sakramentua hartzeko prestatzen direnak Jaunak sendo ditzan eta euren erruen egiazko damua iristen lagun diezaien. Egigun otoitz. R/.

—Jaunak fedegabeen adimena eta bihotza zabal ditzan egia ezagutzera iritsi daitezen, euren bihotzak amesten duen egiazko atsedena iritsi dezaten. Egigun otoitz. R/.

—Gaixoiei, behartsuei, tentaldian bizi direnei eta sufrimenduarekin Kristoren Gurutzearekin bat egiten duten guztiei Jainkoak bere laguntza eman diezaien. Egigun otoitz. R/.

—Garizumako bidean aurrera eginez bihotz-berrituak eta argituak iris gaitezen gertu ditugun Pazko jaietara. Egigun otoitz. R/.

Errukian aberatsa zaren Jainkoa, barkamen besarkadaz onartzen dituzu damaturik zugana itzultzen direnak; entzun gure otoitzak eta gure bekatuak barkaturik jantzi gaitzazu ezta-soinekoz, pazko-otorduan parte hartu ahal izan dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Prefazioa

IV. prefazioa erabil daiteke (Meza liburua 328. or.).

Jaunartze-ondorengo otoitza

**Jaingo Jauna, Zuk argitzen dituzu
 mundu honetara etorri diren gizon-emakume guztiak;
 argitu zeure graziaren distiraz gure gogo-bihotzak,
 benetan ezagutu
 eta maitasun handienaz maita zaitzagun.
 Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

Bukaerako oharpena

Bizitzara goaz. Kristo gurutziltzatuaren jarraitzaile garela jakinik eta gurutze horretatik jasotzen dugun indarra gizaki guztien zerbitzura jartzeko gozoz. Gurutzea dugu poz gure nekeetan.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. R/. Eta zure espirituarekin.

Makur zaitetze, Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

**Zaindu itzazu, Jauna, zure laguntza eske dituzunok,
 indartu ahulak eta argitu beti zeure argiaz
 herio-ilunpean dabiltzanak,**

**gaitz guztietatik bihotz onez aterata,
ondasun gorenak eskura ditzaten.**

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R/. Amen.

**Bedeinka zaitzate! Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, + eta Espiritu Santuak. R/. Amen.**

Zoazte Jaunaren bakean. R/. Eskerrak Jainkoari.

*Herriaren gaineko otoitzaren ordeztan, erabil daiteke Bedeinkapen Nagusia
(liburuxka honetan, 6. orrialdean).*